

BIZITZA:

Telesforo Monzón Ortiz de Urruela (Olaso dorrea, Bergara, Gipuzkoa, 1904ko abenduaren 1a Baiona, Lapurdi, 1981eko martxoaren 9a) euskal idazlea eta politikari nazionalista izan zen.

Bigarren Errepublikaren garaian Eusko Jaurlaritzako kidea izan zen, buruzagi jelkidetzat. Gerra Zibila galdu ondoren, erbestera ihes egin beharra izan zuen. 40 urtez Ipar Euskal Herrian bizi izan zen; aldi hartan aldaketa ideologiko sakona izan zuen, eta Hego Euskal Herrira itzuli zenean Herri Batasunaren sorreran parte hartu zuen.

Frankistek Euskadi okupatu zutenean, 1937ko abuztuaren 23an, Jose Antonio Agirre lehendakariarekin batera egin zuen ihes Santandertik Frantziarantz.

OBRA:

Olaso ezizenez sinatu zituen bere lanak deserrian zebilen bitartean. Olerkigintzan hasi zen lehenengoz, eta 1945ean Mexikon argitaratu zuen Urrundik. 1947an Frantziara itzuli zen, eta Gudarien Eginak argitaratu zuen, bere obrarik ezagunenetakoa. 1950eko hamarkadan antzerkigintzan ere aritu zen, komedia batzuk idatzi zituelarik. 1966an, euskaltzain urgazle izendatu zuten.

Hala ere, Monzóni ospe handiena kantekek eman zioten. Izan ere, hainbat abesti abertzale sortu zuen, doinu ezagunen bati erantsita: Itziarren semea, Batasuna, Lepoan hartu eta segi aurrera, Kanta aberria, Kalera, kalera...

Telesfororen idazlanik ospetsuenak musikatutako olerkiak ditugu, makina bat euskal abesti abertzalaren hitzak sortu baitzituen: *Bai Euskarari*, *Batasuna*, *Itziarren semea* eta abar. Beste hainbat olerki, aitzitik, idatziz argitaratu zituen.

